

BARRI-ALDIA (MODERNIDAD): 1.-VOLTAIRE (1694-1778)

EDESTIA AGERLE

Urteen joanak agertzen dauz burubideen okerrak. Edes-
tiak aztertuko gaitu.

Ori jazoten jako Eleizeari, antxiñakoa izanik edesti luzea
daukalako. Baiña ez da orretan bakarra. Idaz-lan onetan
eta urrengo beste bostetan barri-aldi edo modernismoaren
okerrak aztertuko doguz, Gonzalez Faus J.L. jakitunari
"Abjurar la modernidad" liburuskari diñoanari jarraituz.
Buruargien (Ilustración) aldiko okerrak gaurko ikuspegi-
tik agertuko doguz. Gaur Voltaire'gaz asiko gara.

ASKATASUNA NAGUSI (Norberarena)

Buru-Argien aldia askatasunerako bidea zan eta ona
emen askatasuna len baiño geiago alboratuta.
Euren guraria iru itzetan agertu eben: Askatasuna, bar-
dintasuna ta senditasuna. Baiña bete ete ziran irurak? Ez!
Askatasuna jarri zan nagusi (norberarena) eta onek zapal-
du ebazan beste biak.

BARDINTASUNA?

Joputza (gizonak esklabu izatea) txarra dala diño, baiña
beti izan dala eta izango be bai. Ez dau Voltaire'k berba-
txu bat be esaten jopuen askatasuna lortu bear dala baiezteko.
Bardintasuna ederra dala diño, baiña eziña. Gizonak
aurrera egiteko, geienak ez-eukiak izan bear ei dabe:
"Gizona txarto egiña da eta ez dautso iñori emoten bere
ogiareen zatia. Aundiak txikia jaten dau beti".

AURRERAPENA

Buru argia ta aurrerapena lortzeko bidean ez da gizona
piztien antzekoa, baiña bai alkar-laguntzan edo makalak
aintzat artzeko bidean: Ekonomi-arloan gizonak eta piz-
tiak bardiñak gara: Gizakien arteko bardintasuna onetan
amets utsa edo kimera da.

Orregaitik, toki guztietan gizona izan da emakumearen
jabe, indartsuagoa dalako, gorputzez eta gogoz aundia-
goa dalako.

Eta iñon ez diño ori aldatu bear danik!

BAKOITXA ABERASTU

Saldu-erosia da aberatsa izateko bidea.

Inglaterra berez txiroa da baiña saldu-erosian aberastu
zan. Ez dau itauntzen salerosketa orreik noraiño itzi ebe-
zan txirotuta besteak!

Esku-zurien edo burgesen aurka dago Voltaire, baiña arlo
orretan curen alde agertzen da, jopuak, esklabuak, saldu-
ta be aberastu ziranen alde.

Ara zer diñoan eskutitz baten: "Nire ustez bearrezkoa da
eskeko ez-jakiñak egotea. Langillea be ez da egin bear
jakitun. Be-maillako erria pentsatzen asten danean, dana
da galdua".

ALKARTASUNIK EZ

"Mundutarra" deritxon bere olerki baten diño "alkartasu-
na (solidaridad) il egin bear dala, norbera ondo bizi iza-
teko. Gure aurretikoak goratu egingo doguz, ez sedarik
ez urrerik ez eukelako? Ez, gizona, Jainkoagaitik! Jabe-
tza barik maitasunik zorionsuena ez da maitasuna, bear-
izana baiño".

BURU ARGIA (RAZON) NAGUSIA

Buru-argia dauko Voltaire'k bere jainko-lekuan, erre-
geak, eleizak eta nobleak kenduta, baiña bere elburua ez
da besterik batzuk (onein artean bera) ondo bizi izatea
baiño. Ezin dau menperatu norberekeria, batez be diru-
arloan.

Bide orretatik ez dau lagundu Voltaire'k gure mundua
zuzentzeko: Zelako mundua sortu dau ortik? Gizakien
artean % 80 gosez bizi-izatea lortzen lagundu dau, orain-
goz, eta gero zer etorriko ete da? Goratu torre bikoitxen
(gemelas) arazoa.

(Oarra: Esandako "Abjurar la modernidad" liburuskatik
au eta urrengo zenbakietan beste bost idaz-lan aterako
dodaz: 2.-Buru-argien irakatsia, 3.-Liberaltasun barria
erleen antzekoa, 4.-Monteskieu, 5.-Rousseau, 6.-Edestia-
ren elburua.)

OLAZAR'tar Martin



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU